



Elorrioko udala

IRAGARKIA

Elorrioko Udalak 2025eko ezohiko egoeretarako dirulaguntza deialdia onartzea (2025-00028 espediente)

2025eko martxoaren 18an 142 zenbakiko Alkatetzaren dekretuz, 2025eko ezohiko egoeretarako udalaren dirulaguntza deialdia onartzea erabaki zuen. Beraz, dagozkion oinarri espezifikoak osorik argitaratzen dira.

Deialdi hau 2008ko abenduaren 18an egindako Ohiko Osoko Bilkuran onartutako Dirulaguntzen Oinarri Arautzaileen arabera egin da (2009ko martxoaren 9ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuak). Bi aldaketa izan zituen: lehena, 2010eko otsailaren 11n Osoko Bilkurak onartua (eta maiatzaren 10ean BAOn argitaratua) eta bigarrena, 2011ko abenduaren 28an Osoko Bilkurak onartua (2012ko otsailaren 10ean BAOn argitaratua).

Elorrio, 2025eko martxoaren 18a

Julene Lazkano Zenitagoia

Alkatea



ELORRIOKO UDALAK 2025EKO EZOHICO EGOERETARAKO EMATEN DUEN DIRULAGUNTZA ARAUTZEN DUTEN OINARRI ESPEZIFIKOAK

Abenduaren 23ko 18/2008 Legeak, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoak honako hauetarako tresnak arautzen ditu: herritar izateak dakartzan eskubide sozialak benetan baliatzeko orduan behar beste baliabide pertsonal, sozial edo ekonomiko ez dutenei laguntzeko, bazterkeria-arriskuari aurre egiteko, bazterkeria pertsonala, soziala eta laborala arintzeko, eta gizarteratzea errazteko.

Zehatzago esanda, gizarteratzeko eta bazterkeria-arriskuari aurre egiteko tresnetako bat Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak (GLL) dira. Dirulaguntza horiek aldizkako izaera dute eta haien hartzaileak bizikidetzako unitatean egonik, honako ezaugarriak dituzten pertsonak dira: gizarte-bazterkeria prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko beharrezko diren gastu espezifikoak, ohikoei nahiz ezohikoei, aurre egiteko behar beste baliabide ez dituztenak.

Kontuan izanik, alde batetik, gizarte larrialdietarako laguntzetarako baliabideak onartzea Eusko Jaurlaritzari dagokiola, baina Durangandeko Amankomunazgoak kudeatzen dituela; eta, bestetik, laguntza horiek Elorrioko biztanleriaren eskariari erantzuteko gutxi izan daitezkeela, Elorrioko Udaleko Politika Soziala Arloak urtero aurrekontuetan aurrekontu-atal bat aurreikusten du Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuarekin erantzun ezin diren eskaerei erantzuteko, eta haietan aurreikusi ez diren beste batzuei aurre egiteko.

Azaldutako arrazoiengatik Elorrioko Udalak ezohiko egoeretarako laguntzak emateko oinarri arautzaile hauek ezartzen ditu gizarte-bazterkeria edota pertsona ahulenak ezohiko arrazoi onorioz jasandako egoerak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko. Xedapenak honako hauek dira:

OINARRI ARAUTZAILEAK

1.- Artikulua. Xedea.

1. Deialdi honen xedea hau da: 2025 urtean gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen arreta emateko, eta beraz, haien garapena eta ongizatea bermatzeko, Elorrioko Udalak emango dituen ezohiko dirulaguntzak arautzea. Dirulaguntzen kudeaketa Elorrioko Udaleko Politika Soziala Arloari dagokio, eta 2024ko azaroaren 21eko osoko bilkuran onartutako Dirulaguntzen Plan Estrategikoak aurreikusten duenaren barruan garatzeko ezartzen dira.
2. Deialdi honen ondorioetarako, ezohiko egoeretarako laguntzak esaten denean Elorrioko Udaleko Politika Sozialen arloak emoten duen edozein prestazio ekonomikoaz ari gara, onuradunek kontraprestazio zuzenik barik, gizarte-bazterkeriagatik edota pertsona ahulenak izandako egoeren ondorioz jasandako ezohiko egoerak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko.

2. Artikulua. Definizioa, izaera eta ezaugarriak.

1. Ezohiko egoeretarako esandako laguntzak, dirulaguntzak dira; ez dira aldian-aldian emango, eta gizarte-bazterkeria prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko beharrezko diren gastu espezifikoak, ohikoei nahiz ezohikoei, aurre egiteko behar beste baliabide ez duten pertsonak ditu xede.
2. Ezohiko egoeretarako laguntzak helburu jakina dute, beraz, helburu horretarako baino ezingo dira erabili.



3. Dirulaguntza hauek izaera subsidiarioa eta osagarria dute indarreko legerian aurreikusten diren era guztietako baliabide eta prestazio ekonomikoena, dirulaguntza titularrari edo haren bizikidetza-unitateko edozein kideri legozkioketenean, hala nola, kasua bada, bizitza berean bizi diren beste egoiliarrei.

3. Artikulua. Diruz lagunduko diren gastuak, zenbatekoak eta familia unitatea.

Oro har, eman beharreko urteko gehieneko zenbatekoak ezartzen dira. Kopuru horiek 2025. urterako gizarte-larrialdietarako laguntzei buruzko Aginduan ezarritakoak izango dira. Agindu hori laster argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, eta aurreikusitako gastu espezifiko bakoitzerako gehieneko zenbatekoak ezartzen ditu.

Laguntza hau eskatzerakoan aurreko paragrafoan aipatutako Agindua argitaratu ez bada, aurreko urteko Aginduan ezarritako parametroak aplikatuko dira.

Hori guztia oinarri hartuta, gizarte-langileak dagokion proposamen-txostena egingo du, aparteko egoeretarako laguntza gisa, artikulua honetan aurreikusitako gastu espezifiko bakoitzerako.

Honako hauek dira ezohiko egoeretarako dirulaguntzak hartuko dituen gastuak:

1. Ezohikoak eta beharrezkoak, ohiko etxebizitzarekin edo bizilekuarekin lotuta, hauek:

- a) Alokairurako, etxegabetzeak saihesteko edo etxebizitza eskuratzea errazteko.
- b) Ohiko etxebizitza bat edo bizitokia, -gizarte larrialdiaren egoera aurretik- , erosteko hartutako kredituen interesak eta amortizazioak eragindakoak.

) Energia, argia, ur eta gasarenak.

- d) Beharrezkoak, ohiko etxebizitzan edo bizitokian bizi ahal izateko, eta oinarritzko ekipamendurako, honako hauek alegia:

d.1) Altzari-gastuak.

d.2) Etxetresna elektriko gastuak "linea zurikoak".

d.3) Etxebizitza edota erkidegoan egin beharreko egokitze- eta konpontze-beharrak edo oinarritzko instalazioak.

Artikulu honetan zehaztutako gastuak bateraezinak dira xede bererako GLL delakoak emoten dituenekin, eta erreferentziazat hartuko dira Durangaldeko Amankomunazgoak GLL delakoaren araudiak jasotzen dituen ordainketa-zenbatekoak.

Pertsona edo familia-unitate bakoitzeko urteko gehieneko zenbatekoa 2025. urteko Aginduan ezarritakoak izango dira. Agindu hori laster argitaratuko du Eusko Jaurlaritzak gizarte-larrialdietarako laguntzei buruz.

Laguntza eskatzen denean aurreko paragrafoan aipatutako Agindua argitaratu ez bada, aurreko urteko Aginduan ezarritako parametroak aplikatuko dira.

2. Bizikidetza-unitatea osatzen duten kide baten edo gehiagoren oinarritzko beharrei dagozkien gastuak salbuespen egoeretan eta, betiere, gerora sortutako ezohiko egoera baten ondorioz bada eta erabiltzaileak berak ez sortutakoa. Honako gastu hauek adibidez: jantziak, janaria, garraioa (beharpostura edo eskolara joateko, eta larrialdi kasuetarako), eta osasun/botika gastuetarako, sistema publiko ezberdinek babesten ez dituztenean.

Orokorrean, artikulua honetan zehaztutako gastuak bateraezinak dira xede bererako AES delakoak emoten dituenekin, eta erreferentziazat hartuko dira Durangaldeko Amankomunazgoak AES delakoaren araudiak jasotzen dituen ordainketa-zenbatekoak.

Pertsona edo familia-unitate bakoitzeko urteko gehieneko zenbatekoa 2025. urteko



Aginduan ezarritakoak izango dira. Agindu hori laster argitaratuko du Eusko Jaurlaritzak gizarte-larrialdietarako laguntzei buruz.

Laguntza eskatzen denean aurreko paragrafoan aipatutako Agindua argitaratu ez bada, aurreko urteko Aginduan ezarritako parametroak aplikatuko dira.

3. Aurretiko zorpetzearen gastua 1 eta 2 ataletan aipatutako gastu-kontzepturen batek edo bizitzako oinarritzko premiei aurre egiteko sortutako gastuak.

Pertsona edo familia-unitate bakoitzeko urteko gehieneko zenbatekoa 2025. urteko Aginduan ezarritakoak izango dira. Agindu hori laster argitaratuko du Eusko Jaurlaritzak gizarte-larrialdietarako laguntzei buruz.

Laguntza eskatzen denean aurreko paragrafoan aipatutako Agindua argitaratu ez bada, aurreko urteko Aginduan ezarritako parametroak aplikatuko dira.

4. Indarkeria matxista kasuetan erreparatu behar denaren ondorengo gastuetarako laguntzak.

Urteko gehieneko zenbatekoa pertsona edo familiako 1.500,00 eurokoa da.

5. Gerora sortutako egoera baten aurrean, eskatzailea enpleguarekin bateragarri egiteko, zaintza-zerbitzuak kontratatzearen ondoriozko gastuak, guraso bakarreko familietan, familia ugarietan, mendekotasun larria edo handia duen kideren bat edo %50etik gorako desgaitasuna duen bizikidetz-unitateetan eta indarkeria matxistaren biktima den kideren bat duen familia-unitateetan. Salbuespenezko egoeretara ere zabaldu ahal izango da, hala nola eguneko zentroak ixten direnean.

Urteko gehieneko zenbatekoa pertsona edo familiako 1.500,00 eurokoa da.

6. Aurreko artikuluetan batu ez diren beste gastu batzuk eta oinarritzko gizarte zerbitzuetako beharginen iritzia entzun ondoren onartu beharko liratekeenak.

Urteko gehieneko zenbatekoa pertsona edo familiako 1.500,00 eurokoa da.

7. Pertsonako edo familiako zenbateko gehiena, kontzeptu guztiak batu eta gero ezingo da izan urtean 2.000,00 € baino gehiago.

8. *Familia unitatea, kasu honetan, honako hauek osatuko dute:*

a) *Eskatzaileak;*

b) *Eskatzailearen ezkontideak deuseztasunik, bananketarik edo dibortziorik ez badago, edo izatezko bikote lez bizi den pertsonak;*

c) *Zaintzan edo babespean dituzten seme-alabak, etxe berean bizi badira.*

Oinarri hauetarako, aita eta ama egoitza berean ez badaude erroldatuta eta ezkondu barik badaude, izatezko bikote modura hartuko da elkarbizitza adingabearen aitak eta amak egiten dutena, ez bada, elkarrekin ez direla bizi egiaztatzen duen ebazpen judizial bat dagoela eta honek semearen edo alabaren zaintza eta babesaren erregimena nori dagokion esaten duena.

4. *artikulua. Aurrekontu kreditua eta zenbatekoa.*

Diru-laguntza hauek onartzeko dagokion kreditu erabilgarria 7.000,00 eurokoa da. Gastu hau 2025 ekitaldiko aurrekontuko 2300.480.12 (Larrialdietarako laguntzak) aurrekontu-aplikaziotik ordainduko da.

Emongo diren dirulaguntzen guztiak ez du gaindituko aurrekontuetan izendatutako



zenbatekoa, edo eguneratu ondoren ateratzen dena, indarrean dagoen legediak xedatzen duenari jarraituz aurrekontuan aldaketak onartzen diren kasuan.

Dirulaguntzaren hasierako zuzkidura, handiagotzen bada aurrekontuan kreditua gehitu delako ez dira onartu behar izango oinarri barriak edo hauek berraztertu.

5. Artikulua. Onuradunak.

Ezohiko egoeretarako laguntza hauen onuradun izan daitezke, oinarri arautzaile hauetan aurreikusitako baldintzetan, honako baldintza hauek betetzen dituzten pertsona fisikoak:

a) Elorriko erroldatuta egotea eta benetan bertan bizitzea eskabide-orria aurkeztu baino sei hilabete lehenago gutxienez.

Gutxienerako denbora hau betetzen ez bada, Elorriko erroldatuta egon behar izan da bost urtez, azken 10 urteetan

b) 18 urte beteta izatea. Gutxienerako adin-muga horretatik salbuetsita egongo dira, adin horretara iritsi gabe eta gainerako baldintzak beteta, honako egoera hauetakoren batean daudenak:

-Ekonomikoki bere kargura adin txikiko beste pertsona batzuk baditu, edo nagusiak desgaitasun batekin edo menpekotasun kalifikazioarekin.

-Umezurtz izatea, bai guraso biak falta direlako edo guraso bakarreko umezurtz izateagatik.

-Ezkondua edo antzeko harreman iraunkor baten bidez lotuta daudenak sei hilabeteko antzintasunarekin gutxienez.

-Genero-indarkeriaren, beste indarkeria matxista, etxeko indarkeria edota arrazakeriaren biktimak izan direnak. Gizarte langilearen txostena indarkeria egoera egiaztatze nahiko izango da salaketarik ez dagoen kasuan.

c) Deialdi honetako 3. artikuluan jasotako gastuei aurre egiteko nahiko baliabide ez izatea eskatzaileari buruz edo bizikidetzat unitateari buruz ari garela.

d) Nolanahi ere, eskatzaileak ezin izango ditu gainditu Eusko Jaurlaritzak gizarte-larrialdietarako laguntzei buruz 2025ean argitaratutako Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den Aginduan ezarritako urteko diru-sarreraren mugak.

Laguntza hau eskatzeko egunean aurreko paragrafoan aipatutako Agindua argitaratu ez bada, aurreko urteko Aginduan ezarritako parametroak aplikatuko dira.

e) Inskribatuta egotea Etxebizitza Saileko Etxebide zerbitzuak etxebizitza eskatzeko, dirulaguntza alokairu-gastuetarako eskatzen denean.

f) Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

g) Onuraduna ez da egongo 38/2003 Legeak, Diru-Laguntzen Orokorra, 13. artikuluan edo Diru-Laguntzen Udal Ordenantza Orokorra 10. artikuluan jasotzen dituen egoeretako batean.

h) Edozein modutan ere, onuradunak Elorriko Udaleko oinarritzko zerbitzu sozialetako gizarte langilearen aldeko txostena beharko du.



Honako pertsona hauek ezin izango dira dirulaguntza hauen onuradun izan:

- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan jasotako egoera eragozleren batean daudenak.

- Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen penal edo administratiboa izatea.

- Berdintasunerako eskubidea eta sexu-diskriminaziorik eza urratzeagatik zehapen irmoa izan badute administrazio-bidean edo lan-arloan edo zigor-arloan, dagokein zehazpena indarrean dagoen bitartean.

- Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testuategina onartzen duenak eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoak, xedatzen dituzten betebeharrak betetzen ez dituztenak.

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren arabera horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean egotea, sexuagatiko diskriminazioa barne.

6. Artikulua. Dirulaguntza emoteko irizpideak.

1. Eman beharreko laguntzaren gehieneko zenbatekoa deialdi honetan ezarritako irizpideen arabera eskatutakoa izango da, eta ezin izango da 2.000 eurotik gorakoa izan eskatzaile eta familia-unitate bakoitzeko.

2. Kasu partikular bakoitzean ezarriko den gehieneko zenbatekoa, 3. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, ordea txikiagoa izan ahal izango da gastuaren benetako premiarekin eta bazterkeria egoeran edo lehentasunezko izaerako pertsonen laneratzeko garrantziarekin lotuta gizarte zerbitzuek egindako balorazioa kontuan hartuta.

Aparteko egoeretarako dirulaguntzaren zenbatekoaren kalkulua egiteko irizpideak oinarri hauen B eranskinean agertzen direnak dira.

Dirulaguntza ukatzeko irizpideak honako hauek izango dira:

Eskatzailearen edo familia-unitatearen saldoa banketxetako kontuetan eskabide-orria aurkeztzen den egunean 3.000,00 € baino handiagoa bada. - Ohiko etxebizitza (trastelekua eta garaje bat barne Elorrioren) ez den beste ondasun higiezin baten jabea bada.

- Lan murrizketa gozatzea menpekotasuna duten pertsonekin lotuta ez badago.

- Beharrean borondatezko baja eskatu badu edo eszedentzian bada menpekotasuna duten pertsonak zaintzeko ez bada.

7. artikulua. Eskaerak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1. Eskabide-orriak deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita 2025ko azaroaren 15era bitartean aurkeztu ahal izango dira.

Eskabide-orria tramitazio telematikoa bidez aurkeztu ahal izango da, dagokion sinadura elektronikorekin, edo administrazio-posta ziurtagiri bidez, edo Elorrioko udaletxeko Herriarrentzako Arreta Zerbitzuan (HAZ) Herriko Plaza 1, Udalaren web orrian eta udal bulegoetan dagoen eskabide-orriaren bitartez.



2. Gizarte zerbitzuek dirulaguntza bideratzeko eskatzaileei behar duten informazio eta orientazio emongo diete. Horretarako ordua eskatu beharko da.

3. Eskabide-orriarekin batera honako agiri hauek aurkeztuko ditu:

a. Eskatzaileak edo honek izendatutako ordezkariak sinatutako eskabide-orria (Eranskina).

b. Bizikidetza-unitateko kideen NANaren fotokopia.

Atzerritarren kasuan: AIZren baimenaren fotokopia, hau eduki ezean pasaportearen fotokopia, eta izanez gero Foru Ogasunak emondako IFZ.

c. Bizikidetza-unitatean adinez txikikoak badaude: familia liburuan betetako orri guztien fotokopia edo txikien zaintza edo tutoretza egiaztatzen duten agiriak.

d. Eskaera egiten den urtearen aurreko urteko aurrezki-libreta, kontu korronte guztietako egungo saldoa, batz bestekoa eta interesak; epe finkekoen, inbertsio funtsen, akzioen, gordailuen, eta abarren agiriak, hala nola, bizikidetza-unitateko kide guztien urtean zehar egondako guztiena, eta azken sei hilabeteetako bankuetako mugimenduak.

e. Dirulaguntza dagokion kasuan, dirulaguntza sartzeko libretaren lehen orriaren fotokopia.

f. Bizikidetza-unitateko kide guztien urteko azken hiru nominen fotokopia.

g. 16 urtetik gorako bizikidetza-unitateko kide guztien errenta eta ondasunen ziurtagiria. Foru Aldundia. Eskatu daiteke:

- Foru Ogasunak Durangon edo Bilbon dituen bulegoetan.
- Telefonoz: 901 50 20 00 edo 94 406 80 00. Ziurtagiria biharamunean etxera bialtzen dute posta bidez.
- Internet bidez: sinadura elektronikoa edo BizkaiBai txartela behar dira.

h. GIZARTE SEGURANTZA: Pentsioaren ziurtagiria, edo, pentsionista ez den kasuan, bizikidetza-unitateko kide guztiena, eta lan-bizitza.

i. INEM: Sorospen edo langabezia-prestaziorik jasotzen den kasuan edo jasotzen ez den kasuan, egoera egiaztatzen duen ziurtagiria bizikidetza-unitateko 16 urtetik gorako guztiena 65 urtera artekoak barne. LANBIDE: Prestazioak jasotzen diren kasuan zeintzuk, mota eta zenbatekoa egiaztatzen duen agiria. Gauza bera prestaziorik jasotzen ez badu (Lanbidek Elorrioko Udalaren Gizarte Arloari informazio hori emon badio, ez da beharrezkoa izango aurkeztea).

k. Eskatzen duen dirulaguntzaren premia azaltzen duen dokumentazioa:

— Etxebizitza alokatuta badu:

- Kontratuaren fotokopia eta errentaren azken ordainagiria.
- Etxebiden inskribatuta dagoela edo inskribatzea eskatu duela egiaztatzen duen agiria.

— Hipoteka bat izanez gero etxebizitza bat erosi duelako: banketxeak egindako egiaztagiria 2025 urtean hilean ordaintzen duen kuota agertuko denean, hala nola, kreditua eskatu zen urtean, eskatutako zenbatekoa, kredituaren titularrak eta honen xedea (zehaztu egin beharko du etxebizitza erosteko dela).

8. artikulua. Prozedura, Instrukzioa eta Erabakia.

1. Laguntzak deialdi irekiaren bidez izapidetuko dira, lehiarik gabeko norgehiagoka-erregimenean, eta banakako ebaluazioa egingo da, eskabideak aurkeztu diren ordenaren arabera eta dagoen aurrekontu-mugaren arabera.



2. Eskaerak Elorrioko Udaleko Politika Sozialak Sailaren bidez bideratuko dira eta berari dagokio deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzen instrukzioa egitea.

3. Dirulaguntzen instrukzio organoa osatuko dutenen arteko genero parekidetasuna egongo da. Ordezkaritza orekatua dagoela ulertuko da lau kideetik gorako organoetan sexu bakoitzeko kideek %40ko ordezkaritza dutenean gutxienez. Gainerako kasuetan, berriz, bi sexuek ordezkaritza dutenean.

4. Oinarri hauek arautzen dituzten dirulaguntzak emateko espedientea ebazteko eskumena duen udal-organoa Alkatetza izango da, baina kasu honetan Gobernu Batzordeari eskuordetuta dauka bere eskumena.

5. Prozeduraren gaineko erabakia hartzeko eta jakinarazpena egiteko epea ez da sei hilabete baino gehiago luzatuko. Gehienezko epe hau igaro bada erabakiaren gaineko bidezko jakinarazpenik barik, interesdunek ulertu beharko dute eskaera, administrazio isilbidez, atzera bota dela.

6. Jakinarazpena banaka egingo zaie interesdunei urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearena, 41.1 artikulua xedatzen duena jarraituz.

7. Dirulaguntzen Udal Ordenantza Orokorraren 13. artikulua aurreikusten duen moduan, Udalaren iragarki-oholean eta web orrian iragarriko dira emondako dirulaguntzak jasotzen dituen erabakiaren iragarkia, bertan agertuko den informazioa honako hau izango delarik: deialdia, egotzitako programa eta aurrekontu-kreditua, onuradunak, emondako zenbatekoa eta dirulaguntzaren helburua edo helburuak.

8. Hartutako erabakiak administrazio bideari amaiera emongo dio, eta erabakiaren kontra Udalaren aurrean berraztertzeko errekurtsioa tartekatzeko aukera egongo da, edo baita zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsioa tartekatzeko Bilboko dagokion auzitegian. Hori guztiori, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikulua eta hurrengoek, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen 29/1998 Legearen arabera.

9. artikulua.- Laguntzaren zenbatekoa.

1. Ezohiko dirulaguntzak horretarako hartuko den erabakian agertzen den moduan ordainduko dira.

2. Dirulaguntzaren ordainketa aurreordainketa izango da, eta zuritu aurretik egingo da eta ez da bermerik eskatuko.

10. Artikulua. Onuradunen betebeharrak

Dirulaguntza honen onuradunek honako betebeharrak bete beharko dituzte:

a) Jasotako dirulaguntza emondako xederako erabiliko da.

b) Elorrioko Udaleko Gizarte Zerbitzuetan, egutegiko 15 eguneko gehienezko epean, sortzen den unetik, helbidea aldatu badu onuradunak eta dirulaguntza onartzea oinarri zuten baldintzetan aldaketa handia emon bada.

c) Itzultzea ez zegozkien prestazioen zenbatekoak edo jaso behar ez zen zenbatekoa.

d) Administrazioaren aurrean agertzea eta berarekin lankidetzan aritzea Elorrioko Udaleko Gizarte Zerbitzuek egitea gura dituzten egiaztapenak egiteko, eta eskatzen zaion informazioa emotea.



e) Emondako dirulaguntza zuritzea oinarri hauen 11. artikulua aurreikusten duena jarraituz.

11.- Artikulua. Egindako gastuen zuriaketa.

1. Dirulaguntzaren gaineko erabakian ezohiko egoeretarako dirulaguntzaren onuradunentzako egindako gastuen fakturak, tiketak edo zuriaketa-agiriak aurkezteko derrigortasuna jasoko da.

2. Gehieneko epea izango da ekitaldi ekonomikoa amaitu aurretik, eta hau ezin denean, hilabeteko epea erabakiaren jakinarazpenaren egunetik.

3. Gastuak ordainagiri eta gainerako dokumentu frogagarri baliokideen bitartez frogatuko dira. Beti ere dokumentuok lege eta merkataritza alorrean baliozkoak edo administratiboki eraginkorrak izan beharko dute, beti ere arauetan ezarritakoaren haritik.

Agiri horiek jatorrizkoak izango dira edo egiaztatutako fotokopiak, edo baita Elorrioko Udaleko Politika Sozialetako administrazio pertsonalak egiaztatutakoak.

4. Emondako dirulaguntza zuritzeko betebeharra bete ez denean edo nahiko zuritu ez denean, zuritu ez den zatiari dagoen zenbatekoaren itzulketa lotuta darama.

Itzultzeko betebeharra baita ezarriko da onuradunak dagokion zenbatekoa baino gehiago jaso duen kasuan, edo ez dagokiona jaso duenean.

Dirulaguntza itzultzeko betebeharra erabakitzen duen erabakia arrazoitua egongo da, eta itzulketa egiteko beharra sortzen duen arrazoa zehaztuko du, hala nola, zenbatekoa itzultzeko borondatezko aldia. Erabaki honek baita jasoko du ezarritako epearen barruan itzuli ez den zenbatekoa itzuli ezik premiamendu bidera joko dela.

Itzultzeko betebeharrak, ez du zerikusirik izango eska daitezkeen zehapenekin.

12. Artikulua. Administrazioaren eskubidea aurkeztutako dokumentazioa berraztertze eta ikuskatzeko

Elorrioko Udalak eskubidea gordeko du dirulaguntzaren eskatzaileak Zinpeko Adierazpenean zehaztutako datuak egiaztatze, egiazkoak diren ikusteko.

Horretarako, prozedurak irauten duen bitartean edozein agiri osagarri eskatu ahal izango du Elorrioko Udalak.

Eskatzaileak dirulaguntza emoteko eskatzen den dokumentazioa aurkezten ez badu, prozeduran atzera jo duela ulertuko da, eta kasu honetan jasotako dirulaguntza itzultzerantz behartuta geratuko da.

13. artikulua.-Elkarreragingarritasuna

Elorrioko Udalak dokumentuak eta informazioa eskatu ahal izango dizkie beste administrazio batzuei, elkarreragingarritasunaren esparruan,

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikulua eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 5. artikulua arabera. Horren helburua da eskatutako dirulaguntzen kudeaketa erraztea eta administrazio-izapideen eraginkortasuna bermatzea.

Udal honek beste administrazio batzuetan norbere datuak eta dokumentuak kontsulta ez ditzan eskubidea du eskatzaileak. Eskubide horretaz baliatzea erabakitzen badu, behar



bezala arrazoitutako idatzia egin beharko du, eta zergatia adierazi . Behar den moduan arrazoitu gabeko erabateko ezetzik ez da onartuko.

Datuak eskatzearen aurka egiteko idatzia dirulaguntzak eskatzeko epean aurkeztu behar du.

Oposiziorako idatzian honako datu hauek zehaztu behar ditu behintzat, eskatzaileak:

- Eskatzailearen datuak.
- Zer dokumentu edo datuei egiten dien aurka zehaztu.
- Informazioa kontsultatzearen aurka egiteko arrazoiak adierazi eta haien justifikazioa.

Eskatzaileak baliozko oposizio arrazoitua aurkezten badu, Administrazioak oposizio hori ebaluatuko du, eta erabakiko du ea egokia den beste administrazio batzuei dokumentuak eskatzen jarraitzea. Oposizioa ezesten bada, dirulaguntza izapidetzeko behar den informazioa eskatuko da.

Dirulaguntzen eskaerak sinatzeak berekin dakar dirulaguntzaren oinarrietako baldintzak onartzea, eta dokumentuak kontsultatzearen aurka egiteko eskubidea aitortzen du, bai eta oposizio hori dirulaguntzen eskabideak aurkezteko epearen barruan modu arrazoituan aurkezteko betebeharra ere.

Arestian adierazitakoa gardentasunaren eta datuen babesaren arloan indarrean dagoen araudiak arautuko du, bereziki, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legeak eta (EB) 2016/679 Erregelamenduak, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoak.

14. artikulua. Bateragarritasuna

Artikulu honetan zehaztutako gastuak bateraezinak dira xede bererako GLL delakoak emoten dituenekin, eta erreferentziatzat hartuko dira Durangaldeko Amankomunazgoak GLL delakoaren araudiak jasotzen dituen ordainketa-zenbatekoak.

15. Artikulua. Datuen babesa.

Abenduaren 5eko 3/2018 Legea Organikoak, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa, 11. artikuluan eta otsailaren 25eko 2/2004 Legeak, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa, xedatzen dutena betetzeko, jakinarazten da deialdi honetako tramitazioan jasotako datu pertsonalak "Hirugarrenen erregistroan-BiscayTIK" izeneko fitxategian sartuko direla diru-laguntzen deialdi hau eta prozedura administratibo edota judizialen ondorioz itzulpenak, errekurso administratiboak edota judizialak kudeatzeko, eta diru-laguntzaren garapenarekin lotuta deialdira aurkeztu diren pertsonen notifikazioak eta informazioa bialtzeko.

Datu hauen arduraduna Elorrioko Udala da, (Herriko Plaza zk./gb.) 48230.